



Antxiñako fotografixia



OÑATZ teatro-taldia

Gaur egun Oñatz izena aittatu ezker, dantza-taldia datorkigu burura. Baiña orain dala 25-35 urte etzan hola. Orduan herriko neska-mutillen alkartia zan. Oñatiko gaztien arteko hartu-emunak hobeketan saiatu zan Oñatz alkartia, har-tarako arlo askotan lana egiñaz.

Oñatz-en barruan dantza-taldia ez ezik, antzerki-taldiak be antolatu ziran, euskeraz nahiz erderaz. Hemen ikusten dozue-na 1966xan moldau zan eta euskerazko obrak emuten jardun eben hainbat urtian. Argazki honetan agiri diranak antzestu euen lehenengo teatro-lana: **Arthur Miller**-en *Denak nere semeak* obra ezaguna, **Juan Antonio Letamendia**-k euskeratu ebena.

Fotografixa hau 1967ko urtarrillian Oñatiko **Garoa** zinian egin zan estreinaldikua dozue. Gero Mondrague, Eskoriatza, Bergara, Eibar, Urretxu eta Zarautzera be fan ziran Miller-en obra honekin. Araotzeko saloian egindako aurre-estrenua ahaz-tu barik. Eta, batz best, arrakasta haundiko emunaldixak izan zirala dixue orduko kronikak.

Argazkixan agerketan dira antzerki-lan horretan parte hartu euen artista eta laguntzailerik gehixenak. Hona hemen ize-nak, ezkerretik eskumara:

Zutik: **Jexux Agirre, Jerardo Elortza, Mari Tere Guridi, Iñaki Zelaia, Eujenio Iziar, Tere Letamendi, Iñazio Arriaran, Maixabel Elortza, Joxe Errasti eta Joxe Luis Galdos.**

Jarritta: **Begoña Jauregi eta Alberto Kortabarria.** Antolaketa-lanetan ibilli ziran **Rosarito Galdos eta Marisol Inda** falta dira.

J. E.

Joxe Luis Galdosek itxittako fotografixia

OHARRA: Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, LAIXANera ekar dezakezu. Errekalde Herri Eskolan gaituzu, zatoz!

UGARTE PENTSVAK

AITOR UGARTE LIZARRALDE

**Pentsuak • Ongarriak • Haziak
Irinak eta deribatuak
Produktu Fitosanitario**

Denda: Kale Barria, 2 Tfnoa: 78 03 04
Biltegia: Aozaraza, 2 Tfnoa: 78 18 09

OÑATI

Umerez

**Iturgintza • Berogailuak •
Bainu altzariak**

Arantzazuko Ama kalea, 21 behea • OÑATI • Tfnoa: 71 62 00